

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

##### Berdintasun Zerbitzua

#### **2022 ekitaldian genero berdintasunaren alorrean jarduerak eta proiektuak burutzeko Berdintasun Zerbitzuaren dirulaguntza-deialdiko kreditua handitzea**

2021eko abenduaren 23ko bilkuran, Gasteizko udalerrian 2022rako genero-berdintasunaren arloko jarduerak eta proiektuak garatzeko diru-laguntzen deialdi publikoaren oinarri arautzaileak onartu zituen Tokiko Gobernu Batzarrak, aldezturik onartu ere, 2022rako Udal Aurrekontuko 0160.2381.481.39 partidaren kargura eta 65.000 euroko zenbatekoarekin. Erabakia 2022ko otsailaren 9ko ALHAOn argitaratu zen.

Diru-laguntzak emateko, kreditu egokia eta nahikoa egon behar zen diru-laguntza ematea ebatzen zen unean, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 56. artikuluan ezarritakoaren arabera (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua). Oinarrietan (3.2 artikuluan) berariaz jasotzen zenaren arabera, baldin eta hasieran aurreikusitakoa baino diru-kopuru handiagoz hornitzen bada partida hori 2022ko aurrekontuetan, deialdiari aplikatu ala ez erabaki ahal izango du organo kudeatzaileak, eta ebazpena eman aurretik behar den gastu-dosiera izapidetu, beste deialdi bat egiteko beharrik gabe.

Diru-laguntza jasotzeko eskaera asko aurkeztu direnez, eta kontuan hartuta 2022rako indarrean dagoen aurrekontuan azkenean partida hori (0160.2381.481.39 Berdintasun Zerbitzurako dirulaguntzak) 85.000 eurokoa dela, Berdintasun Zerbitzuak 2022ko martxoaren 15eko txostenean proposatzen du igoera hori 2021ean aldezturik onartutako deialdiari aplikatzea; beraz, genero-berdintasunaren arloko jarduera eta proiektuetarako dirulaguntzen deialdiak 85.000 euroko zenbatekoa izango du azkenean.

Dirulaguntzen Legearen Erregelamenduaren 56. artikulua adierazten duen eta oinarrien 3.2 puntuan jasota dagoen moduan, zenbatekoa handitzeak ez dakar berekin deialdi berri bat onartzea, ezta proiektuak aurkezteko epe berri bat irekitzea ere. Izan ere, proiektua aurkezteko epea amaitua da dagoeneko, zehazki 2022ko otsailaren 18an amaitu zen.

Eskumenak eskuordetzeari buruz alkateak 2020ko urriaren 1ean emandako dekretua, Udalaren dirulaguntzak arautzeko ordenantzen 5.1 artikulua eta Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 127.1.g) artikulua ikusirik, Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariak proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

#### Erabaki-proposamena

Lehenengoa. Berdintasun Zerbitzuak 2022ko ekitaldian genero-berdintasunaren arloko jarduerak eta proiektuak garatzeko diru-laguntzen deialdi publikoari hasiera batean esleitutako kreditua 20.000 eurotan handitzea onartzea. Ondorioz, azken zuzkidura ekonomikoa 85.000 eurokoa izango da, 2022ko aurrekontuko 0160.2381.481.39 partidaren kargura.

Zenbatekoa handitzeak ez du esan nahi deialdi berri bat onartzerik, ez eta proiektuak aurkezteko epe berri bat irekitzerik ere.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn eta Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea.  
Herritar oro jakinaren gainean egon dadin ematen da argitara.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko apirilaren 8an

*Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendari nagusia*  
**ESTÍBALIZ PEREDA SAGREDO**